# Atabal

JANVIER-MARS
URTARRILA-MARTXOA
2018



Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariaren hitza

Atabal est une salle de concert, mais pas que... C'est une école de musique où on enseigne autrement. Ce sont des projets culturels, des enregistrements avec des étudiants, des résidences d'artistes. Des groupes qui viennent répéter. Des projets hors murs. Nos couloirs, nos salles vivent de toute cette créativité, animée par autant d'acteurs.

Marjolaine, petite fille de sept ans, va du chant aux percussions en passant par des jeux, avec tout un groupe d'enfants pour un cours d'éveil musical. Frédéric réalise, adulte, son rêve d'enfant de jouer de la batterie. Romain, lui, s'est donné pour objectif de se perfectionner à la guitare. Parmi les deux cents cinquante élèves de notre école, chacun vient apprendre pour diverses raisons, et Yann orchestre tout ce beau monde, avec nos professeurs. Brice au premier étage, quant à lui, planche sur un nouveau projet pédagogique et toutes nos actions cultuelles. Cette fois-ci, verra-t-on des jeunes partir en voilier et créer un morceau de musique au milieu de l'océan, ou est-ce qu'on organise un repas à l'aveugle pour sensibiliser à la différence ?

Je pousse la lourde porte, et je croise Jean. Il prépare une nouvelle formation multimédia, met le site web à jour ou installe une exposition d'artistes nationaux ou internationaux. Ogittu s'affaire tout autant à charger et décharger, remplir le bar, et préparer les soirées qu'à distribuer les programmes et affiches des prochains concerts. François enjambe les marches de l'escalier par deux pour se rendre à une énième réunion. Il porte la mission publique d'Atabal, notre projet artistique global, et suit l'administration de la structure orchestrée par Elise. Malvina imagine et conçoit avec Corinne toute notre communication, dont ce livret que vous avez dans les mains. Elles s'occupent aussi de nos adhérents, des relations avec la presse, de la billetterie.... Bientôt une réunion du conseil d'administration d'Atabal se réunit pour voter les décisions qui régissent la structure. C'est Nathalie, Delphine, Jocelyne, Stéphanie, Florian, Laurent, Fred, Éric, Alan, Benjamin, Pierre.

Et les soirs de concert, après avoir travaillé en studio ou résidence pendant la semaine, nos régisseurs techniques, Sabri et Mathieu deviennent les garants du bon déroulement technique et logistique du spectacle. Essentiels aussi, Fax notre technicien lumière, Xavier notre agent d'entretien, Delphine, Louison et Tom nos services civiques, notre cabinet comptable, les intervenants extérieurs, les agents de sécurité, ... Les collectifs, associations et structures qui travaillent avec nous pour construire sur notre territoire un écosystème culturel. Les artistes, les groupes, les tourneurs.... C'est tout ce monde qu'il faut pour que les projets se multiplient, les publics s'élargissent, pour soutenir la pratique amateur et la diffusion professionnelle, et vous faire découvrir d'autres univers musicaux. Et pour être cet espace d'expression, il y a un ingrédient ultime, vous !

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

Atabal kontzertu areto bat da. Bai. Baina, hori baino gehiago ere... Musika eskola bat da, beste gisako irakaskuntza aldarrikatzen duena. Proiektu kulturalak garatzeko eremua da. Ikasleek grabatzeko eta artistek egonaldiak egiteko tokia da. Musika taldeek errepikatzeko lekua da. Atabaletik kanpoko proiektuak aipatu gabe! Gure pasabideetan eta geletan, eragile eta ekintzaile anitzi esker, sormena da nagusi.

Marjolaine, zazpi urteko neskatoa, beste haur anitzekin, musika gogoa pizteko jardueretan, kantuan, perkusioan eta jokoetan ari da. Frédéric-ek bere haurtzaroko ametsa bete du: orain, bateria jotzailea da. Romain-ek gitarran hobetzeko helburua du. Gure eskolako berrehun ikasleen artean, haur bakoitzak musika ikasteko arrazoi ezberdinak ditu. Yann-ek guzi hori antolatzen du, irakasleak eta ikasleak kudeatzen ditu. Brice-ek, gainean, lehen estaian, proiektu pedagogiko eta kultur ekintza berriak prestatzen ditu. Aldi honetan, gazteak itsas bela gainean kantuak sortzen ibiliko ote dira edo ezberdintasunari sentsibilizatzeko begiak tapaturik bazkalduko ote dute?

Ate pizua pusatu eta Jean kausitzen dugu. Multimedia formakuntza berri bat prestatzen ari da, webgunea eguneratzen du ala estatuko edo nazioarteko artisten erakusketa bat instalatzen ari da. Ogittu karraskan ari da, kargatzen eta deskargatzen, ostatua betetzen, gaualdiak prestatzen, liburuxkak banatzen eta hurrengo kontzertuetako afitxak hedatzen. Enegarren bilkura batean parte hartzeko, François-ek eskailerak saltoka jausten ditu. Atabaleko misio publikoa eta proiektu artistiko orokorra bere gain dira. Elise-ek kudeatzen duen alor administratiboaren hurbiletik segitzen du. Malvinak Corinnekin komunikazio osoa lantzen du; adibidez, esku artean duzuen liburuxka. Gure kideez, prentsarekiko harremanaz, txarteldegiaz arduratzen dira ere. Laster, egiturari buruzko erabakiak bozkatzeko, Atabaleko administrazio kontseilua bilduko da: Nathalie, Delphine, Jocelyne, Stéphanie, Florian, Laurent, Fred, Éric, Alan, Benjamin eta Pierre.

Eta, kontzertu arratsetan, astean zehar estudioetan edo egonaldian lan egin ondoan, Sabri eta Mathieu teknika arduradunak ikuskizun denboran teknika eta logistika osoa ongi iragatearen erantzuleak dira. Fax argi teknikariak, Xavier garbiketa langileak, Delphine, Louison eta Tom herritar zerbitzuko langileak, kontabilitate bulegoak, sekuritate agenteek ere funtsezko zeregina betetzen dute... Lurraldean kultur ekosistema bat eraikitzeko, kolektiboak, elkarteak eta beste egiturak gurekin lanean ari dira. Artistak, taldeak, management enpresak ere badira. Proiektuak biderkatzeko, publikoa zabaltzeko, praktika amaturra eta hedapen profesionala sostengatzeko eta musika genero berriak ezagutarazteko, jende guzi hau beharrezkoa da! Eta, Atabal zinezko adierazpen eremua izateko, azken osagai bat falta da: zuek!

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna

*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.imprimerie-ibt.com** *Inprimatzea*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*
*Visuel Couverture* **Prunelle Giordano** *Azaleko Irudia*
*Sérigraphies et originaux en vente au microcosme à Bayonne www.lemicrocosme.com*
*Serigrafiak eta jatorrizkoak Baionako Microcosme arte galerian salgai*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

# Exposition Erakusketa

# THE ILLUSTRATORS

## CIOU - MalOjo - Erik Kriek - Marie Novion - FRANECK - Martin Ontiveros - VENOM Jennifer Parks - Miss PATY - NIX NOLTE- Mlle FORMA - GEB - Aya Kakeda ...





Après l'exposition The Illustration en 2013, Atabal revient avec THE ILLUSTRATORS.

L'exposition proposera de réunir divers artistes nationaux et internationaux, aux identités et aux influences graphiques éclectiques, issus de la BD, de la sérigraphie, du tatouage ...

THE ILLUSTRATORS tentera d'éveiller l'imagination et la créativité qui sommeille en chacun de nous !










2013an antolatutako The Illustration erakusketaren ondotik, THE ILLUSTRATORS erakusketa aurkeztuko du Atabalek.

The Illustrators erakusketak nortasun eta eragin grafiko anitzak -komikigintza, serigrafia, tatuaia, etab...- dituzten estatuko eta nazioarteko artista ugari bilduko ditu.

THE ILLUSTRATORS erakusketa gutarik bakoitzean lo dauden irudimena eta sormena pizten saiatuko da!

**Exposition du Vendredi 01 Décembre au Samedi 10 Mars 2018**

**Abenduak 01 ostiraletik martxoak 10 larunbatera**

## DIMANCHE 14 JANVIER 09:00-18:00 URTARRILAK 14 IGANDEA



# SALON DU DISQUE #9
# DISKO AZOKA

Une journée où les amateurs de vinyles et les simples curieux se retrouvent pour dénicher la perle rare et voguer au gré de leurs envies. Harribitxiak kausitzeko, biniloen maitaleak eta musikazale kuriosak elkarretaratzen dituen eguna da.

**SIESTES SONORES D'ANTOINE MUSIKA ETZANALDIAK**
Aventure sensorielle comme un tourne-disque offrant un morceau de relaxation au naturel. Kantu lasaigarri bat zuzenean entzun eta geldirik bidaiatzeko eta lasaitzeko parada.
*30 min - gratuit sur réservation urririk baina lekua erreserbatu behar da*
*3 séances 3 saio 11:00 14:00 15:00 - + 3ans / adultes 3 urtetik goiti / helduak*

**CONCERTS KONTZERTUAK**
15:00 **VLADIMIR CONGO** - 16:00 **DJ LEE SCRATCH POURRI**

**DÉDICACE IZENPETZEA OLD SCHOOL FUNKY FAMILY**
Présentation et dédicace du vinyle «PING PONG». «PING PONG» biniloaren aurkezpena eta izenpetzea.

Propositions scénographiques par le **LYCÉE CANTAU ANGLET ANGELUKO CANTAU LIZEOAK** proposatutako eszenografia

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
serviceciviqueprojets@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

I gratuit urririk



# VENDREDI 19 JANVIER 21:00 URTARRILAK 19 OSTIRALA

# PETIT FANTÔME
## + MAK JAK

*En résidence du 08 au 11 Janvier // Urtarrilaren 08tik 11ra sorkuntza egonaldian*





**PETIT FANTÔME**
PETIT FANTÔME, pseudonyme évasif et mystérieux de Pierre Loustaunau, multi-instrumentiste intrépide désormais entièrement dévoué à son projet solo lancé en 2006. 3 ans après «Torse Bombé», PETIT FANTÔME revient avec l'album «Un Mouvement pour le Vent», qui serpente entre pop romantique et noisy brumeuse, onze plages où s'entend d'entrée son inclinaison pour les nineties.
L'artiste repart en tournée dans une nouvelle formation à cinq, avec Vincent Bestaven de Botibol, Sylvain Kalbfleisch, Mathieu Hauquier et le batteur basque Félix Buff pour notre plus grand bonheur !

**MAK JAK**
Chanteur, rappeur, producteur, MAK JAK propose une pop moderne, aux sonorités hip-hop et électro, quelque part entre guitares aériennes et basses saturées.
Après Bain Noir (2016) et MAK (2017), un nouvel EP est prévu pour début 2018.

**PETIT FANTÔME**
Pierre Loustaunauren proiektu misteriotsua eta lausoa da PETIT FANTÔME. Musika tresna anitz jotzen dituen dohain handiko mutila, egun, 2006an hasitako bakarkako proiektuari osoki emana da. «Torse Bombé» argitaratu eta 3 urtera, PETIT FANTÔME «Un Mouvement pour le Vent» diskoarekin itzultzen da. Hamaika kantuz osatutako lanean, pop erromantikoaren eta noise musika lainotsuaren artean, 1990ko hamarkadako musikaren eraginak nabarmenak dira. Petit Fantôme taldea kontzertu biran abiatuko da, berriz. Boskotean ariko da, Botibol taldeko Vincent Bestaven fidelarekin, Bordeleko Sylvain Kalbfleischekin, Mathieu Hauquierekin eta Felix Buff (Willis Drummond) bateria jotzaile euskaldunarekin!

**MAK JAK**
Mak Jak kantaria, rap kantaria eta ekoizlea da. Gitarra lainotsuen eta baxu distortsionatuen artean, hip-hop eta elektronika ukituak dituen pop modernoa eskaintzen digu. «Bain Noir» (2016) eta «MAK» (2017) diskoen ondotik, 2018 urte hastapenean, beste disko labur bat argitaratuko du.

POP
INDIE

♥♥♥
*François & The Atlas Mountains*
*Etienne Daho*

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan
PASS Urtarrilak 19&20 Janvier 15€/18€

## SAMEDI 20 JANVIER 20:30 URTARRILAK 20 LARUNBATA

# MONARCH!
# + YEAR OF NO LIGHT + ORBEL

*ORBEL en résidence du 15 au 17 Janvier // Urtarrilaren 15tik 17ra sorkuntza egonaldian*




### MONARCH!
Dans le petit monde des musiques mortuaires, MONARCH! fait figure de fierté nationale. Maîtres du pachydermisme mis en musique, artisans-doomsters sans concession, les Bordelo-Bayonnais figurent parmi les groupes les plus extrêmes et ont rapidement gagné à ce titre une reconnaissance internationale.

### YEAR OF NO LIGHT
YEAR OF NO LIGHT se pose comme le représentant français de l'après-métal. Doom, black métal, post-hardcore, post-punk, drone, post-rock... Les Bordelais, en solide groupe de scène, nous délivre une musique ambitieuse qui n'appartient qu'à eux.

### ORBEL
Lumière éblouissante au milieu du crépuscule, ORBEL navigue entre deux mondes, toujours sombres, guidés par un lyrisme et une émotion assumés. ORBEL se produira pour la 1ère fois à domicile.

### MONARCH!
Hileta-musiken mundu ttipian, MONARCH! jaun eta jabe da. Baiona eta Bordeleko taldeak musika astuna, pisua eta kontzesio gabea eskaintzen du; muturreko musika, arras iluna. Hala, taldeak nazioartean berehalako ezagupena jaso du.

### YEAR OF NO LIGHT
Munduko post-metal eszenaren baitan, YEAR OF NO LIGHT taldea Frantziako ordezkari nagusia da. Doom, black metal, post-hardcore, post-punk, drone, post-rock... YEAR OF NO LIGHT zuzeneko talde liluragarria eta sendoa da. Bordeleko taldeak musika anbiziotsua eta epikoa eskaintzen du.

### ORBEL
Ilunabarrean itsu geratzeko argi baten modukoa. ORBEL bi munduren artean dabil. Lirismoari eta emozioari jarraikitzen dio, baina, iluna da, beti. ORBEL taldeak lehen aldiz etxean joko du.

DOOM
POST ROCK

©Michaël Barret

♥♥♥
*Cult Of Luna*
*Chelsea Wolfe*

10€ / 7€ (adh-kide) en loc-aurretik
13€ / 10€ (adh-kide) sur place-bertan
PASS Urtarrilak 19&20 Janvier 15€/18€

# VENDREDI 26 JANVIER 20:30 URTARRILAK 26 OSTIRALA

# BB BRUNES
## + NAYA

*En résidence de création du 22 au 26 Janvier // Urtarrilaren 22tik 26ra sorkuntza egonaldian*



**BB BRUNES**
10 ans. 10 ans déjà que les BB BRUNES tournent sans cesse sur nos platines et sur les plus belles scènes françaises et européennes.
Le quatuor revient avec un nouvel album «Puzzle» qui inaugure un véritable virage musical : groove, pop, électro et bien sûr rock.
Après 3 concerts aux Etoiles (Paris) complets, une date à l'Elysée Montmartre déjà annoncée le 14 Février, le quatuor vous garantit d'ores et déjà de débuter 2018 en beauté !

**NAYA**
En cinq chansons, une artiste est née. La voix de NAYA, douce, affirmée et bluesy est mise au service d'une pop rêveuse et mélancolique. Autour de l'architecture guitare-voix se déploie une production riche qui laisse la mélodie au cœur et prend des libertés avec les canons de la folk. De la pure pop, cuvée 2017.

**BB BRUNES**
Badu jadanik 10 urte BB Brunes taldea gure platinetan eta Frantziako eta Europako agertoki handienetan etengabe itzulika dabilela.
Laukoteak «Puzzle» izeneko disko berria kaleratu berri du. Taldearen musikaren bilakaeraren isla da: groove, pop, elektronika eta rock musikak uztartzen ditu.
Pariseko Les Etoiles antzokia jendez bete eta hor 3 kontzertu jarraian eskaini ondotik, otsailaren 14an Elysée Montmartre aretoan kontzertua emango dutela iragarri dute. Atabalen ere, laukoteak 2018 urteari hasiera ezin hobea emango dio, segur !

**NAYA**
Bost kantu eskas eta artista berri bat jaio da. Nayaren boza goxoa eta sendoa da. Bere blues ukituko ahotsa pop musika ameslari eta malenkoniatsuaren zerbitzura ezarria da. Gitarra-ahotsa oinarriaren gainean, melodia erdigunean jartzen duen eta folkaren arauetarik libratzen den ekoizpen aberatsa eta landua dago. 2017ko pop bikaina.

POP
ROCK

♥♥♥
*Saez*
*Izia*

25€ / 22€ (adh-kide) en loc-aurretik
28€ / 25€ (adh-kide) sur place-bertan

## JEUDI 01 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 01 OSTEGUNA

# WAND
# + THE PSYCHOTIC MONKS

Présenté par **ATABAL** et **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik






### WAND
Adoubé par Ty Segall himself, on ne présente plus WAND, LA référence psyché rock californienne du moment.
Après avoir fréquenté Meatbodies ou Mikal Cronin, Cory Hanson, chanteur/claviériste/guitariste, officie dans ce band hyper créatif ! Après «Ganglion Reef» et «Golem», les 4 californiens enchaînent avec «Plum» en septembre 2017. Pour ce 4e album, leur musique se concentre sur une sonorité multi-chromatique et dense: une évasion dans les profondeurs chaudes et confortables de l'anarchisme.

### THE PSYCHOTIC MONKS
Du bruit, de la fureur, une musique qui s'imprègne avant tout de pulsions de vie. THE PSYCHOTIC MONKS s'expriment dans un chaos à la fois réfléchi et incontrôlé : le résultat donne des rencontres poétiques entre des murs de sons distordus inspirés par la clique de Ty Segall notamment...

### WAND
Ty Segall jaunaren onespena jaso duen Wand taldea Kaliforniako rock psikodelikoaren momentuko erreferentzia nagusia da. Meatbodies taldearekin eta Mikal Cronin artistarekin jo ondoan, Cory Hanson kantari/teklatu jotzaile/gitarristak sormen handiko talde honekin jotzen du orain. «Ganglion Reef», «Golem» eta «1000 Days» diskoen ondotik, 2017ko irailean, laukote amerikarrak «Plum» diskoa plazaratu zuen. Laugarren lan honetan, rock garage soinua liluragarria bilakatzen duten osagaiak entzun daitezke, hau da, kolore anitzeko musika arras trinkoa.

### THE PSYCHOTIC MONKS
Sekulako harrabotsa eta amorrua. Bizi-irrikaz betetako musika. THE PSYCHOTIC MONKS taldeak gogoetatutako eta kontrolatutako kaosa adierazten du. Ty Segall eta halakoen eraginpeko soinu distortsionatuek osatutako soinu paretetan, ustekabeko arrasto poetikoak uzten ditu.

GARAGE PSYKE

♥♥♥
*Ty Segall*
*Thee Oh Sees*

9€ en loc-aurretik // 12€ sur place-bertan
gratuit (adh-kide) urririk

MUSIQUE D'APÉRITIF

*gratuit urririk (adh-kide)*



# VENDREDI 02 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 02 OSTIRALA

# GABACHO MAROC
# + NICO'O & THE KAPIOLANI BOYZ

DOUBLE **RELEASE PARTY** BIKOITZA





**GABACHO MAROC**
En à peine 4 ans d'existence, leur fusion a enflammé les scènes de plus de 150 festivals. Après «Bissara» en 2014 est né «Tawassol», nouvel album dont les 10 titres sont à l'image du groupe : joyeux, festif et généreux.
World, jazz africain, chants gnawas: Gabacho Maroc est tout cela. Un pont entre les continents, une fusion sans cesse réinventée, un mélange des genres unique pour un panorama sonore exaltant.

**NICO'O & THE KAPIOLANI BOYZ**
Basque, surfeur et considéré comme l'un des meilleurs joueurs européen de ukulele. Aujourd'hui, c'est en compagnie des Kapiolani Boyz que Nico'o évolue. Un trio qui distille du Hawaïen Jazz, du traditionnel, du slack Key et tout ce qui fait la musique Hawaïenne.

**GABACHO MAROC**
Talde duela 4 urte sortu zen. Taldeak 150 festibal baino gehiagotan jo du. Bere musikarekin publikoa sutan ezarri du. 2014ko «Bissara» diskoaren ondotik, «Tawassol» disko berria aurkezten du. 10 kantuak taldearen isla dira: alegerak, besta girokoak eta eskuzabalak.
World, jazz afrikarra, gnawa kantuak... Kontinenteen arteko zubia, etengabe berriz asmatzen den fusioa, musika genero nahasketa bikaina... Gabacho Maroc hori guzia da. Soinu panorama bihotz pizgarria eskaintzen du.

**NICO'O & THE KAPIOLANI BOYZ**
Surflaria eta Europako ukulele jotzaile onenetarik bat da Nico'o. Orain, Kapiolani Boyz lagunekin batera jotzen du. Hirukotean, Hawaïiko musika egiten duen guzia jotzen dute: jazz musika, musika tradizionala, slack Key gitarra teknika.

WORLD MUSIC

♥♥♥
*Tinariwen*
*Israel Kamakawiwo'ole*

9€ en loc-aurretik // 12€ sur place-bertan
gratuit (adh-kide) urririk

*gratuit urririk (adh-kide)*



©Polka Photos

## SAMEDI 03 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 03 LARUNBATA

# NISH WADADA & PAUL FOX MEETS EQUAL BROTHERS

Présenté par **EQUAL BROTHERS**-ek aurkezturik








**DUB GREETINGS,** c'est le rendez-vous Sound System Dub Reggae en Euskal Herri.
Lors de chaque session, **EQUAL BROTHERS** invite des collectifs et des artistes de la scène DUB européenne.
Pour ce nouveau rendez-vous, nous vous proposons la rencontre de deux chanteurs extraordinaires.
**PAUL FOX**, artiste passionnant et chanteur hors pair, tout droit sorti des sound systems londonien des années 90 qui a collaboré avec des formations comme Alpha & Omega ou Dubheart.
Et **NISH WADADA**, fraîchement débarquée du Cap Vert qui a fait ses premières armes avec le sound system King Shiloh. Elle envoûte, par sa présence vocale, toute les scènes où elle se produit.

La soirée se déroulera à ATABAL dans la joie et la bonne humeur, au son de notre sono artisanale made in EH.
EQUAL BROTHERS Full System : Heavy Bass Guaranteed !!!

**DUB GREETINGS**, Euskal Herriko Sound System Dub Reggae hitzordu nagusia da.
Saio bakoitzean, **EQUAL BROTHERS**-ek Europako dub eszenako artista eta kolektiboak gonbidatzen ditu.
Dub Greetings saio berri honetan, bi kantari bikain elkartzea erabaki dugu.
Lehena, **PAUL FOX**, 1990eko Londreseko sound systemetarik jalgitako kantari paregabea da. Alpha & Omega edo Dubheart bezalako taldeekin jo zuen.
Eta, bigarrena, **NISH WADADA**, Cabo Verdetik jin berria da. Lehen urratsak King Shiloh soinu sistemarekin egin zituen. Nortasun handiko ahotsa du eta agertoki gainean presentzia handia du. Hala, denak liluratzen gaitu.

Hala, EHn eraikitako gure soinu sistemarekin, usaian bezala, Atabalen giro oneko eta alaiko gaualdia iraganen dugu.
EQUAL BROTHERS Full System : Heavy Bass Guaranteed !!!

DUB
SOUND SYSTEM

♥♥♥
*Channel One*
*Alpha & Omega*

7€ en loc-aurretik // 10€ sur place-bertan
gratuit (adh-kide) urririk

*gratuit urririk*
*(adh-kide)*



**SAMEDI 10 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 10 LARUNBATA**

# VITALIC *LIVE*
# + ABSTRACKT KEAL AGRAM

**- COMPLET BETEA -**



## VITALIC *LIVE*

On ne présente plus VITALIC, qui s'est employé au cours des années à redéfinir la notion d'électro à la sauce française, imposant sa patte inimitable grâce à des titres devenus aujourd'hui des classiques !
Icône de la scène électro française grâce à de nombreux tubes publiés au fil de ses quinze ans de carrière, le dijonnais VITALIC revient avec «Voyager» son 4ème album présenté comme un condensé de «l'héritage cosmique des années 80» et que l'artiste considère comme son album le plus disco à ce jour.

## ABSTRACKT KEAL AGRAM

La reformation de ABSTRACKT KEAL AGRAM a pris de court tous les nostalgiques de l'électro hip hop. Fer de lance du genre en France au début des années 2000, le duo est de retour aux affaires : réédition d'un triple album de toute leur discographie et sortie d'un nouvel album «Screen Blood».

## VITALIC *LIVE*

Nork ez du VITALIC artista ezagutzen? Azken urteetan, frantziar ukituko musika elektronikoa arraberritzen ibili den DJa da. Egun, diskoteka edo club kulturan, klasikoak bilakatu diren kantuak sortu ditu !
Hamabost urtez kaleratu dituen kantu arrakastatsuen ondorioz, gaur egun, Frantziako musika elektronikoaren ikonoa da. Dijon hiriko artista «Voyager» izeneko laugarren diskoarekin dator, orain. «80ko hamarkadako ondare kosmikoaren» bilduma gisa aurkeztu du diskoa. Ordu arte egin duen "diskorik discoena" dela dio.

## ABSTRACKT KEAL AGRAM

ABSTRACKT KEAL AGRAM taldea berriz osatu da eta elektro hip hop musikaren nostalgia dutenak ezustean atzeman ditu. 2000ko hamarkada hastapenean, Frantzian, musika mota honen aitzindaria izan zen bikotea. Eta orain, taldea bueltan da: diskografia osoa biltzen dituen hiru disko berrargitaratu ditu eta «Screen Blood» disko berria kaleratu du.

ELEKTRO

♥♥♥
*Cassius*
*Boyz Noize*

©C. Le Mindu - D. Hugono Petit

# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak

## Lundi 12 au Vendredi 16 Février // Otsailaren 12etik 16ra, astelehenetik ostiralera



### STAGE GUITARE *+ 10 ans - Adultes*

***(10h30>11h30 Initiation / 11h30>12h30 Perfectionnement)***

***50€/semaine (40€ adhérent)***

Animé par les profs de la Rock Eskola

A partir d'un répertoire de musiques actuelles vous travaillerez la rythmique, l'harmonie et l'interprétation.

### GITARRA TAILERRAK *10 urtetik goiti - Helduak*

***(10:30>11:30 Iniziazioa / 11:30>12:30 Hobetzea)***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Rock Eskolako irakasleek animaturik

Gaurko musiken errepertorio zabala joz, erritmika, harmonia eta interpretazioa landuko dituzue.



### STAGE BATTERIE *+ 10 ans - Adultes*

***(10h30>11h30 Initiation / 11h30>12h30 Perfectionnement)***

***50€/semaine (40€ adhérent)***

Animé par les profs de la Rock Eskola

A partir d'un répertoire de musiques actuelles vous travaillerez la rythmique, l'harmonie et l'interprétation.

### BATERIA TAILERRAK *10 urtetik goiti - Helduak*

***(10:30>11:30 Iniziazioa / 11:30>12:30 Hobetzea)***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Rock Eskolako irakasleek animaturik

Gaurko musiken errepertorio zabala joz, erritmika, harmonia eta interpretazioa landuko dituzue.



### ATELIER DE PRATIQUE COLLECTIVE

***14h>15h30***

***50€/semaine (40€ adhérent)***

Animé par les profs de la Rock Eskola

Pour ceux qui n'ont pas la possibilité de venir aux ateliers tout au long de l'année, Atabal vous propose une formule sur une semaine qui vous permettra d'aborder le jeu en groupe. A partir d'un répertoire donné vous travaillerez le jeu, la mise en place, l'interprétation.
*(Prérequis : au minimum un an de pratique instrumentale)*

### TALDEAN JOTZEKO TAILERRA

***14:00>15:30***

***Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Rock Eskolako irakasleek animaturik



Urte osoan tailer ezberdinetara hurbiltzeko aukerarik ez duzuenei taldean jotzeko parada eskaintzen duen aste bateko formula proposatzen dizue Atabalek. Hautatutako kantu zerrenda batetik abiatuz, kantu baten plantan ematea, jokoa eta interpretazioa landuko dituzue.
*(Baldintza : musika tresna gutienez urte batez landu izana)*

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.22

## Lundi 12 au Vendredi 16 Février // Otsailaren 12etik 16ra, astelehenetik ostiralera



# SKATE & MUSIK

*Lassosalai Skate Club et Atabal s'associent pour vous proposer des ateliers autour du skate et de la musique. Lassosalai Skate Club elkarteak eta Atabalek bat egin eta skate eta musika proposamenak luzatzen dizkizuete.*

## ÉVEIL MUSICAL & SKATE *3 - 5 ans*

***10h>12h - 50€/semaine (40€ adhérent)***

10h à 11h - Initiation au monde de la musique de manière ludique et sensorielle: Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde.
11h à 12h - Initiation au plaisir de la glisse, apprendre et développer les bases du skateboard.



## MUSIKARA HURBILTZEA & SKATE *3 - 5 urte artekoak*

***10:00>12:00 - Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

10:00 - Musikara lehen hurbiltzearen bitartez, haur gazteenek musikaren lehen irakaspenak jasotzeko aukera dute, manera jostagarrian eta sentsorialean. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, instrumentuen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira.
11:00 - Haurrek lerra kirolaren lehen irakaspenak jasoko dituzte, skatean ibiltzeko oinarriak ikasiko dituzte.

## INITIATION MUSICALE & SKATE *6 - 9 ans*

***10h>12h - 50€/semaine (40€ adhérent)***




10h à 11h - Initiation au plaisir de la glisse, apprendre et développer les bases du skateboard.
11h à 12h - Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde. Découverte et pratique des différents instruments proposés à l'école de musique d'Atabal (guitare, batterie, clavier...).

## MUSIKAKO LEHEN IRAKASPENAK & SKATE *6 - 9 urte artekoak*

***10:00>12:00 - Asteko 50€ (40€ kideentzat)***

10:00 - Haurrek lerra kirolaren lehen irakaspenak jasoko dituzte, skatean ibiltzeko oinarriak ikasiko dituzte.
11:00 - Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, instrumentuen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira. Gainera, Rock Eskolan ikasi daitezkeen musika tresna ezberdinak ezagutzeko eta jotzeko parada eskainia da (gitarra, bateria, teklatuak...).



## HIP HOP & SKATE *10 - 17 ans*

***13h>17h 50€/semaine (40€ adhérent)***

13h-14h - Initiation ou perfectionnement à la glisse urbaine.
14h-17h - Brass propose une immersion totale dans l'univers Hip-Hop en accompagnant les jeunes sur l'écriture de chansons au sein des studios d'Atabal. Les jeunes créeront leurs propres textes en explorant ainsi la créativité, la musicalité et le sens du rythme.
***Le stage se clôturera le vendredi à 17h au Skatepark avec une restitution musicale et une démonstration de skate.***

## HIP HOP & SKATE *10 - 17 urte artekoak*

***13:00>17:00 Asteko 50€ (40€ kideentzat)***



13:00-14:00 – Gazteek hiriko lerra kirolean lehen irakaspenak jasotzeko edo hobetzeko parada izanen dute.
14:00-17:00 – Brass artistak hip-hop kulturaren munduan osoki murgiltzea proposatzen du. Hala, Atabaleko estudioetan kantuak idatziko dituzten gazteak laguntzen ditu. Aste oso batez, sormena, musikaltasuna eta erritmoa landuz, gazteek beren hitzak idatziko dituzte.
***Ostiralean, 17:00etan, skate parkean, kontzertu ttipi batekin eta skate erakustaldi batekin bururatuko da ikastaldia.***

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

## Lundi 12 au Vendredi 16 Février // Otsailaren 12etik 16ra, astelehenetik ostiralera



# ATELIER RADIO

***11 - 17 ans***
***10h>12h***
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par Franck Deschamps

Lors de cet atelier, qui sera réalisé dans de véritables conditions techniques d'un studio, vous pourrez vous initier à la présentation et à la découverte de la radio: animation micro, réalisation technique, montage et enregistrement d'une émission. Une expérience participative, ludique et éducative où chaque participant repartira avec ses enregistrements audio.

# IRRATI TAILERRA

***11 – 17 urte artekoak***
***10:00>12:00***
***Asteko 50€ (40€ kideentzat)***
Franck Deschamps-ek animaturik

Estudio bateko egiazko baldintza teknikoetan iraganen den tailer horretan, irratiaren aurkezpenean eta ezagutzan lehen irakaspenak jasoko dituzue: mikrofonoaren bitartez animazioa, errealizazio teknikoa, muntaketa eta emankizun baten grabaketa. Esperientzia parte hartzailea, ludikoa eta hezitzailea. Parte hartzaile bakoitzak bere soinu grabaketak etxera eramaten ahalko ditu.



**Renseignements et Réservations** **Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29




## Lundi 19 au Vendredi 23 Février // Otsailaren 19etik 23ra, astelehenetik ostiralera



### ÉVEIL MUSICAL *3 - 5 ans*
***10h>11h 10€/séance (8€ adhérent)***

L'éveil musical permet aux plus jeunes de s'initier au monde de la musique de manière ludique et sensorielle. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier.

### LEHEN HURBILTZEA *3 - 5 urte artekoak*
***10:00>11:00 Saioko 10€ (8€ kideentzat)***

Musikara lehen hurbiltzearen bitartez, haur gazteenek musikaren munduan lehen irakaspenak jasotzeko aukera dute, manera jostagarrian eta sentsorialean. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak eta munduko musiken ezagutza badira.



### INITIATION MUSICALE *6 - 9 ans*
***11h>12h 10€/séance (8€ adhérent)***

L'initiation musicale fait le lien entre la découverte de l'éveil musical et l'apprentissage d'un instrument. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier, ainsi que la découverte et la pratique des différents instruments proposés à l'école de musique d'Atabal (guitare, batterie, clavier...).

### LEHEN IRAKASPENAK *6 - 9 urte artekoak*
***11:00>12:00 Saioko 10€ (8€ kideentzat)***

Musikara lehen hurbiltzearen eta musika tresna baten ikastearen arteko lotura egiteko balio dute lehen irakaspenek. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, musika tresnen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira. Gainera, Rock Eskolan ikasi daitezkeen musika tresna ezberdinak ezagutzeko eta jotzeko parada eskainia da (gitarra, bateria, teklatuak...).



### LES JEUNES PEINTRES [ATELIER PEINTURE en MUSIQUE] *5 - 9 ans*
***10h>11h / 11h15>12h15 - 10€/séance (8€ adhérent)*** Animé par Franck Cazenave

La vocation des ateliers est d'aider chacun à renouer avec la liberté de «créer», à (re)trouver «le jeune peintre» en lui. Chaque session libère de la dépendance de modèles, à développer une autonomie positive et une expression naturelle. Franck Cazenave n'agit pas en maître mais en praticien bienveillant dédié au soutien individuel. Depuis 2010, l'artiste a accompagné plus d'un millier d'enfants.

### MARGOLARI GAZTEAK [MARGOLARITZA TAILERRA MUSIKATUA]
***5 - 9 urte artekoak 10:00>11:00 / 11:15>12:15***
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)*** Franck Cazenave-ek animaturik

Tailerren xedea norberak duen «sortzeko» askatasuna berreskuratzea eta bere baitako «margolari gaztea» berriz piztea da. Saio bakoitza ereduetatik libratzeko eta autonomia positiboa eta adierazpide naturala garatzeko parada da. Franck Cazenave ez da maisu gisa ari, baizik eta beti laguntzeko prest den bihotz oneko margolari gisa. 2010 urteaz geroztik, mila haur baino gehiago lagundu ditu.



### ATELIER DJ/MAO [MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR] *+10ans-Adultes*
***10h>11h / 11h>12h - 50€/semaine (40€ adhérent)*** Animé par BOOM TCHACK

Les ateliers DJ/MAO permettent de traverser toutes les étapes de la création de morceaux à partir des composants de la musique électronique. Les participants pratiqueront percussion, mélodie et voix. Ils termineront la semaine par un enregistrement et repartiront avec leur propre CD !

### DJ/OLM TAILERRA [ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]
***10 urtetik goiti - Helduak - 10:00>11:00 / 11:00>12:00***
***Asteko 50€ (40€ kideentzat)*** BOOM TCHACK-ek animaturik



DJ/OLM tailerrean, musika elektronikoaren osagaietatik abiatuz, kantu baten sorkuntzaren urrats guztiak ikusteko aukera badago. Gazteek perkusioak, melodiak eta ahotsak landuko dituzte. Astea grabaketa batekin bururatuko dute eta beren diskoarekin joango dira etxera.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

**JEUDI 15 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 15 OSTEGUNA**

# LOMEPAL



**LOMEPAL**
Le rap de LOMEPAL est bien difficile à essentialiser.
Capable d'alterner entre rap technique et chant, Lomepal s'est forgé l'image d'un artiste singulier qui éclaire discrètement la scène rap française.
«Enchanté, Antoine, je brise les rêves et les cœurs mais j'ai un bon fond promis». Ainsi se présente l'homme pâle en ouverture de son premier album «Flip», démonstration flamboyante aux pistes soignées d'un auteur déjà mature.
Un rap nourri de multiples influences à l'élégance folle.

**LOMEPAL**
LOMEPAL artistaren rap musika laburki azaltzea ez da erraza.
Usaiako kantatzeko maneran ala rap kantu teknikoan aritzeko gai da. LOMEPALek artista bereziaren irudia du. 2011z geroztik, Frantziako rap eszena argitzen du.
«Plazer dut zu ezagutzea, Antoine, ametsak eta bihotzak urratzen ditut, baina funts onekoa naiz, zinez». «Flip» lehen diskoaren hastapenean, hitz horiekin aurkezten du bere burua. Diskoa kantu landuen erakustaldi argia da, artista gazte hau jadanik heldua denaren seinale.
Iturri askotarik edan duen rap musika dotorea.

HIP HOP

♥♥♥
*Georgio*
*Roméo Elvis*

16€ / 13€ (adh-kide) en loc-aurretik
19€ / 16€ (adh-kide) sur place-bertan

**VENDREDI 16 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 16 OSTIRALA**

# MAT BASTARD
## + A-VOX



**MAT BASTARD**
L'ex leader de Skip The Use, MAT BASTARD, est de retour ! Installé aux Etats-Unis, il a pris le temps de travailler pour les autres avant de recommencer à écrire pour lui-même. L'album est ainsi lancé: californien dans le son, il aborde des thèmes très variés; il est aussi le fruit de belles collaborations: Neff u (Eminem, 50 cent, Dr Dre), PJ Bianco (Demi Lovato), Ludovic Louis, trompettiste de Lenny Kravitz. Pour les fans de la première heure, les influences punk/rock de Mat ne seront pas en reste !

**A-VOX**
Duo électro percutant, A-VOX c'est un vent frais sur un électro aux accents trap et une énergie rock'n'roll, teintées de mélodies poétiques et puissantes. Anthéa, aux commandes de ses claviers, rayonne par son énergie, Virgile, lui, assène une rythmique implacable avec des beats toniques!

**MAT BASTARD**
MAT BASTARD Skip The Use taldeko lider ohia itzuli da! Estatu Batuetan bizi da orain. Kantu berriak idazten hasi baino lehen, besteentzat lan egiteko denbora hartu du. Azkenean, bere bakarkako lana plazaratu du: soinu kaliforniarra eta gai anitzak. Disko honetan, beste lagun anitzek parte hartu dute: Neff-U (Eminem, 50 cent, Dr Dre), PJ Bianco (Demi Lovato) edota Ludovic Louis (Lenny Kravitzen tronpeta jotzailea). Hastapeneko zaleak ez daitezela kexa, MATen punk-rock eraginek hor diraute!

**A-VOX**
A-VOX bikoteak trap ukituak dituen musika elektroniko berritzailea, rockn'n'rollaren energia eta indarra duten doinuak eta melodia poetiko sarkorrak jotzen ditu.
Anthéak, teklatuen gibelean, sekulako energia du. Virgilek erritmo pizgarriak eta bihozgabeak hedatzen ditu.

PUNK
ROCK

©Zazzo

♥♥♥
*Skip The Use*
*Shaka Ponk*

19€ / 16€ (adh-kide) en loc-aurretik
22€ / 19€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 23 FÉVRIER 12:00 OTSAILAK 23 OSTIRALA




# LE GRAND LIVE #5

*48h d'émission radio en direct d' Atabal, produite et animé par le duo David, Franck et la LGL Team. David eta Franck bikoteak ekoizturik eta animaturik, Atabaletik zuzenean, 48 oreneko irratsaioa.*

Comme les 5 doigts de la main, du pied, et du reste de la boite de Finger de l'an dernier, le marathon radiophonique du Grand Live redébarque pour sa 5ème édition, en direct d' Atabal à Biarritz. 48h d'émission radio (23-24-25 Février), pendant lesquelles, la team recevra invités, convives et artistes autour des 5 micros du Grand Live, avec Dj set et show case de groupes, démonstrations sportives et spectaculaires, show radio et interviews de personnalités locales. Eskuetako edo oinetako 5 erhiak bezala, edo iaztik gelditzen diren 5 finger bixkotxak bezala, Grand Live irrati maratoiaren 5. edizioa iraganen da Atabalen. 48 oreneko irratsaioan (otsailak 23-24-25), 5 mikroren inguruan, animatzaile taldeak gomitak eta artistak errezibituko ditu. Taldeen kontzertuak eta DJ emanaldiak, kirol erakustaldiak eta ikuskizunak, irratsaioak eta tokiko pertsona ezagunen elkarrizketak izanen dira.

Suivez **LE GRAND LIVE 2018** en direct audio et vidéo sur www.le-grand-live.com et sur la page Facebook. www.le-grand-live.com webgunean eta gure Facebook orrialdean, **2018**ko **GRAND LIVE** gertakariaren ikus-entzunezkoa jarrai ezazue.



## JEUDI 01 MARS 21:00 MARTXOAK 01 OSTEGUNA



BLUES ROCK

I gratuit urririk

# CONVENTION DE TATOUAGE

## DÄTCHA MANDALA + TITANIC

*Suite au succès de la 1ère édition,Tattoo WAVE 64 récidive en organisant la 2e Convention de Tatouage Biarritz-Côte Basque. Les 2-3-4 mars, venez vous faire tatouer ou découvrir les plus fines aiguilles de cet art ancestral, dans cet endroit magnifique qu'est le Casino Municipal de Biarritz. Lehen edizioak arrakasta handia ukan zuen. Hala, Tattoo WAVE 64 elkarteak 2. Biarritz-Euskal kostaldea Tatuaje Topaketa antolatzea erabaki du. Martxoaren 2-3-4an, Biarritzeko Kasino ederrera, gorputza tatuatzera edo aspaldiko arte horren orratz-langile finenak ezagutzera jin zaitezte.*

